

AKORDIOA, 2025eko urtarrilaren 9koa , Unibasq Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentziaren Gobernu Kontseiluarena; haren bidez, Gradu eta Masterreko unibertsitate-titulu ofizialen Nazioartekotzearen aitortpena edo Kalitate-Zigilua lortzeko deialdia onartzen da, eta argitara dadin agintzen da.

Ekainaren 28ko 13/2012 Legearen (Unibasq-Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentziari buruzkoarena) 3. artikuluari jarraikiz, *“Euskal unibertsitate-sistemaren esparruan kalitatea sustatu eta bermatzea, Espainiako Europako eta nazioarteko esparruak aintzat hartuta”, “Euskal unibertsitate-sistemaren kalitatea hobetzen laguntzea” eta “gizarteari agentziak garatutako jardueren emaitzen berri ematea”* dagokio Agentziari. Hori dela eta, Euskal Unibertsitate Sistemako titulazioen kalitatea Nazioartekotzearen eremuan sustatzeko eta gizarteari horri buruzko informazioa emateko helburuarekin, Unibasqeko Gobernu Kontseiluak

ERABAKI DU:

Bakarra.- Gradu eta Masterreko unibertsitate-titulu ofizialen Nazioartekotzearen aitortpena edo Kalitate-Zigiluak lortzeko deialdia onartzea eta argitaratzea, honako oinarri hauei jarraikiz:

OINARRIAK:

Lehenengoa.- Xedea.

1. Deialdi honen xedea Euskal Unibertsitate Sistemako Gradu eta Masterreko titulazioen “Nazioartekotzearen” aitortpena edo Kalitatezko Zigilua lortzea da.
2. Aitorpen hori titulazio osora edo haren ibilbide batera zabaldu ahal izango da. Lehen kasuan, aitortpenaren ondorioak titulua ikasten duten ikasle guztiengana zabalduko dira. Bigarrean, berriz, ibilbidea egiten duten ikasleengana soilik.

Bigarrena.- Aurkezteko betekizunak:

Unibertsitate, Zentro eta Tituluen Erregistroan (RUCT) inskribatuta dauden Euskal Unibertsitate Sistemako Gradu eta Masterreko titulu ofizial guztiek lortu ahal izango dute Nazioartekotzearen aitortpena.

Hirugarrena.- Ebaluazioaren edo txostenaren eskaera aurkezteko epea.

Nazioartekotzea aitortpena edo Kalitate-Zigiluaren inguruko eskaerak aurkezteko epea 2025eko urtarrilaren 27tik otsailaren 28ra izango da, eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 30. artikuluan aurreikusitakoaren arabera zenbatuko da.

Laugarrena.- Ebaluazio-eskaeraren formalizazioa.

Aitortu nahi den tituluaren ardura duen unibertsitateak aurkeztuko du eskaera, eta, horretarako, eskatzaileak Agentziaren web orrian aurkituko duen eskaera behar bezala bete eta sinatu ondoren, Unibasqera bidaliko du.

Bosgarrena.- Prozedura.

1. Ikasketa-planaren ebaluazioa Bektoreak Ebaluatzeko Batzordeak egingo du. Batzorde hori ezagutza ezberdinen arloetako ospe handiko kide akademikoez, profil profesionaleko pertsona batez eta ikasle batez osatua egongo da. Bektoreak Ebaluatzeko Batzordearen jardunek Unibasqek bere Etika eta Eskubide Kodean ezarritako argibideei jarraituko diete. Batzorde honek profesionalen, ikasleen eta akademikoen aholkularitza jaso ahal izango du. Bere osaera Agentziaren webgunean argitaratuta dago.

2. Txostena 6 hilabeteko epean egingo da gehienez, ebaluazioa egiteko beharrezkoa den dokumentazio guztiaren sarrera-datatik aurrera zenbatzen hasita. Adierazitako epean esanbidezko ebazpenik ez badago, eskaera ezetsizat hartuko da.

Seigarrena.- Ebaluazio-irizpideak.

Batzordeak erabiliko dituen ebaluazio-irizpideak Unibasqeko Aholku Batzordeak onartutakoak izango dira, Unibasqeko Zuzendariak emandako ebazpenean jasotakoak eta agentziaren webgunean argitaratuta daudenak. Batzordeak erabiliko dituen ebaluazio-irizpideak Unibasqen Aholku Batzordeak onartutakoak izango dira eta " Gradu eta Masterreko unibertsitate-titulu ofizialen nazioartekotzearen aitorpena lortzeko Protokoloa " izenekoan jasoko dira eta Agentziaren webgunean argitaratuko dira.

Zazpigarrena.- Ebazpena.

1. Unibasqeko Bektoreetako Ebaluazio Batzordeak txosten arrazoituko proposamen bat landuko du, ezarritako ebaluazio-irizpideak betetzen diren edo ez aintzat hartuta, eta aitorpena ematearen aldeko edo kontrako iritzia emango du. Azken kasu horretan, aldeko txosten bat lortzeko alegazioen epearen barruan ezinbestean aldatu behar diren alderdiak zein diren adierazteko aukera izango da. Txostenproposamen hori Unibertsitateari bidaliko zaio, egutegiko 10 egunen epean alegazioak aurkezteko aukera izan dezan. Behin epea amaiturik eta, hala badagokio alegazioak baloratu ondoren, Unibasqeko Bektoreetako Ebaluazio Batzordeak behin betiko ebaluazio-txosten bat egingo du, aldekoa edo kontrakoa izan daitekeena, eta Unibertsitate eskatzaileari eta Eusko Jaurlaritzari helaraziko dio. Aldekoa bada, hobetzeko gomendioak txertatzeko aukera izango da, baita aitorpenari eusteko Unibertsitateak hartu beharreko konpromisoak ere, titulazioaren akreditazioaren egiaztapenean, jarraipenean edo berritzean egindako gainerako gomendioak bezala tratatuko direnak.

2. Ebaluazioa aldekoa bada eta tituluak edo ibilbideak aitorpena lortzen badu, Unibertsitateak tituluaren edo ibilbidearen ikasketak egin dituen ikaslearen tituluaren gehigarrian aitorpena jaso ahal izango du. Halaber, informazio publikoan eta titulua zabaltzeko jardueretan, titulu osoak edo ibilbide batek onartutako aitorpena lortu duela azal dezake.

3. Aintzatetsitako tituluen arduradunek, Kalitate-Zigilu honi dagokionez ezarpenean gertatutako gorabeheren berri eman beharko diote Unibasqeri, eta Batzorde eskudunak edo Zuzendaritzak bidezkoz hartzen duen informazio gehigarria eskatu ahal izango du Agentziak.

4. Aintzatetsitako tituluaren Jarraipena edo Egiaztapenaren Berritzea egiten denean (edo, hala badagokio, egiaztapen instituzionala berritzean) edo ofiziozko jarduketa horretan antzematen bada tituluak ez dituela betetzen aitorpena lortzeko beharrezko baldintzetako batzuk, edo ez direla bete ebaluazio-txostenean jasotako konpromisoak, Agentziak emandako aitorpena edo Kalitate-Zigilua kendu ahal izango dio, Batzorde eskudunak egoki irizten badiu. Unibertsitateak egokitzen jotzen dituen alegazioak egin ahal izango ditu Agentziak baldintza edo baldintzak ez direla bete jakinarazten dionean. Alegazioak aztertu ondoren, Kalitate-Zigilua kentzeari edo ez kentzeari buruzko behin betiko erabakia hartuko du Batzordeak. Kalitate-Zigilua kenduz gero, automatikoki ekarriko du aitorpenaren erreferentzia sartzeko ezintasuna, bai tituluaren gehigarrian, bai eragindako tituluaren edo ibilbidearen edozein motatako informazio edo zabalkunde publikoan.

5. Behar bezala justifikatutako salbuespenezko kasuetan, hala nola ezinbesteko kasuetan, krisi ekonomiko oso larrietan eta antzeko kasuetan, Agentziak onartuko du Protokoloan ezarritako betekizunetako batzuen jarraipenean egoeraren araberako ez-betetze bat egitea. Nolanahi ere, ezohiko egoera horretan dagoen Unibertsitateak lehenbailehen jakinarazi beharko dio Agentziari.

Vitoria-Gasteizen, 2025eko urtarrilaren 9an
Unibasq-eko Gobernu Kontseiluko Presidentea.

.....